



Taldeak disko berriarekin etenaldi luzeari amaiera eman dio

2017ko azaroaren 17a, 544 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ANDOAINDARREN ITZULERA

Indarkeria matxistari aurre egiteko nazioarteko egunaren atarikoak

Azaroaren 25era begira hitzorduak antolatu dituzte Andoainen eta Urnietan.

Azaroaren 25a indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna da, herri guztietako egutegian geroz eta garrantzia handiago hartzen ari dena. Andoainen eta Urnietan urteak dira kontzientziatorako egitasmo ezberdinak burutzen dituztela, eta aurtengorako ere hainbat ekimen antolatu dituzte.

Urnietan, azaroaren 25ean egin ohi duten bilkurarekin, amaiera emango diote ekitaldi sortari. Joan zen larunbatean autodefentsa tailerra antolatu zuten, eta datozen egunetarako bi ekimen gehiago abian jarriko dituzte. Azaroaren 24an, esaterako, "La habitación" filma eskainiko dute Saroben. Bestetik, 2018ko lehen hiru hilabeterako Pepa Bojo adituak gidatuko duen Mindfulness ikastaroa antolatuko dute. Izen-ematea datorren azaroaren 20an zabalduko dute, Bertan Udal arreta zerbitzuan.



Andoainen, asteotan, emakume taldea azaroaren 25eko ekitaldia prestatzen ari da.

Andoainen ekitaldi sorta zabalera iragarri berri du Emakume eta Gizonen berdintasunerako lansailak. Guztien gainera, azaroaren 25eko ekitaldia nabarmendu behar da. Izan ere, egun horretan, indarkeria matxistari aurre egin dioten emakumei aitortza ekitaldia egingo diete. Juanita Alkain

plazatik kalejira abiatuko da eguerdiko 12:00etan, eta ondoren Goikoplazan ekitaldia egingo dute. Bereziki ekitaldi hori antolatzeko emakume taldea lanean ari da, azken asteotan.

Aurtengo egitaraua larunbat honetan abiatuko da, autodefentsa feminista ikastaroare-

kin. Allurralde kiroldegian eskainiko dute, goizez eta arratsaldez.

Datorren astelehenetik aurrera eta abenduaren 4ra bitartean, berriz, hitzaldiak, erakusketak, film laburren emanaldia edota Emakunderen bus ibiltaria iragarri dituzte.

[ANDOAIN, 7. ORR.]

Kale Nagusiko lanen berri emateko batzarra

Andoaingo Udalak iragarri duenez, "aurki hasiko dira hoditeria berritzeko lanak Kale Nagusia, Agustin Leitza eta Juan Bautista Erro kaleetan. Lanak zertan datzan azaltzeko eta bizilagunen egunerokora ekarriko dituen eragozpenak argitzeko, batzarra antolatu dugu". Datorren azaroaren 21ean izango da, asteartearrekin, iluntzeko 19:00etan hasita Bastero kulturguneko ekitaldi aretoan. Bertan izango dira Ana Carrere alkatea, Pedro Unanue Zerbitzuetako zinegotzia eta obraren eta trafikoaren arduradun teknikoak.

Behobia-Donostia, sailkapena

Lasterka, patinetan edota Behobia txikian eskualdeko ehun eta berrogeita hamar kirolaririk gora irten zen Behobia-Donostia lasterketa ezagunean.

[KIROLA, 10. ORR.]

Memoriaren eguna Andoainen

Azaroaren 10ean bi ekitaldi izan ziren Andoainen; Udal adierazpena eta Elkarbizik deituriko bilkura.

Goizean, Andoaingo udaletxean, Ana Carrere alkateak Udal adierazpen bateratua irakurri zuen. Iluntzean, Jose Luis Lopez de Lacalle parkean, Elkarbizik bilkura deitu zuen. Bertara, Villafañe, Lopez de Lacalle eta Ansa izaera ezberdineko indarkeriak eragindako biktimak hurbildu ziren. Bi ekitaldietan, memoria kontuan hartzeko eta balioan jartzeko adierazpenak egin ziren.

[ESKUALDEA, 2. ORR.]



Udal adierazpena plazaratu zuten Andoaingo udaletxean, ostiral goizean.

Haur ikuskizunak asteburuan

Urnietako liburutegian ipuin kontaketa saioa eskainiko du **Marisa Tabernerok**, ostiral honetan 17:30etik aurrera. Larunbatean, bestalde, **Nerea Ariznabarreta** eta **Mariano Hurtadok** "Ezberdin bezain eder" ipuin kontaketa eskainiko dute 18:00etatik aurrera Andoaingo Gazte-txean. Ondoren txokolata zango da Gazte-txean bertan.

[ESKUALDEA, 8. ORR.]

AZAROAREN HAMARRA, MEMORIAREN EGUNA

Ekitaldi bikoitza, memoriaren egunean

Iaz egin bezala, Andoaingo Udalak adierazpen bateratua egin zuen azaroaren 10ean, hots, memoriaren egunean. Iluntzean Elkarbizik urtero egin ohi duen ekitaldia antolatu zuen. Eguneko irudia berta-

koa izan zen, biktimen aldeko lore eskaintzan ordura arte agertu ez zen familia bat hurbildu baitzen. Batallón Vasco Españolak 1979an hil zuen Joxe Ramon Ansa gaztearena, hain zuzen.

Aurtengoan **Miguel Ansa** Batallón Vasco Españolak 1979an hil zuen Joxe Ramon Ansa gaztearen osabak Elkarbiziren ekitaldian parte hartu zuen, **Mari Paz Artolazabal** Jose Luis Lopez de Lacalleren alargunarekin eta **Blanca Villafañe** Juvenal Villafañe Guardia Zibilararen alabarekin batera. Ordura arte gertatu ez zen bilkura izan zen hura. Bertaratutakoek txalo egiten zuten bitartean hizketan jardun zuten Ansa eta Artolazabalek. Hizketaldiak iraun zuen une horietan hunkituta agertu zen Artolazabal.

Eguneko bi ekitaldietan egindako adierazpenen artean bada lotura bat, bietan ere ahanzturari ateak itxeko deia egin baitzen. Horra jarraian, eguneko bi adierazpenak:

UDAL ADIERAZPEN BATERATUA

Eguerdian, udaletxean egindako agerraldian, **Ana Carrere** alkaketak aho batez onartutako Udala adierazpena irakurri zuen. Ondoan izan zituen ordezkariak: "Memoriaren eguna ospatzen dugu gaurkoan, eta oroipenerako egun honetan Andoaingo herritar guztiei dei egiten diegu ez dezaten iragana ahaztu, ezta gure gizarteak orokorrean eta modu zehatzean, euren min eta sufrimendu bidegabeak onartzea beharrezkoa den biktima batzuek jasandako ondorio lazgarriak. Biktima horiei elkartasuna, enpatia, egia, justizia, memoria, errekonozimendua eta erreparazioa zor dizkiegu."

Ideien aniztasunean, printzipio demokratikoetan eta giza-eskubideen defentsan oinarritutako memoria inklusibo batekiko gure konpromisoa berretsi nahi dugu, elkarriketa eta elkarren onarpena sustatuko duena eta gaurko eta biharko bizikidetzaren eraikitzen lagunduko duena. Gure artean adostasunez lantzen eta garatzen ari garen konpromisoa da hori.

Horregatik adierazten dugu:

- Indarkeria eta giza-eskubideen urraketa mota guztien gaitzespenetik abiatuta, memoriak terrorismo biktima guztien errekonozimendua, erreparazioa eta ez errepikatzearen bermea sustatu behar dituela.
- Horregatik guztiagatik, Andoaingo memoria politiketan lan egiten eta sakontzen jarraitzeko gure borondatea eta konpromisoa berresten dugu, eu-



Blanca Villafañe Juvenal Villafañeren alaba, Mari Paz Artolazabal Jose Luis Lopez de Lacalleren alarguna eta Miguel Ansa Joxe Ramon Ansa gaztearen osaba.

ren duintasuna bidegabekeriak erasotua ikusi izan duten biktima guztien erreparazioa lortzeko, baita bidegabekeria horiek errepika ez daitezen bermatzeko ere.

ELKARBIZI

Iluntzean, **Mikel Arregik** hitz batzuk eskaini zizkien bertaratu zirenei, lore eskaintzari ekin aurretik: "Memoriak inoiz gertatu behar ez zuenarekiko indi-

"Biktimei elkartasuna, enpatia, egia, justizia, memoria, errekonozimendua eta erreparazioa zor dizkiegu"

Andoaingo Udala

Bizikidetzaren lantzen egitasmoa

Memoriaren egunaren harira, Euskadi irratia **Maribel Vaquero** urnietarra elkarriketatu zuen, bera baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren zuzendaria. Agintaldi honetan martxan jarri duten Bizikidetzaren lantzen egitasmoaz jardun zuen, **Manu Etxezortu** esatariarekin: "Agintaldi honetan indarkeriaren ondorioen lanketa bat egin behar zela erabaki genuen. Ez bada iraganeko zaurien sendatze hori orain egiten, gerora eztanda egiten digu. Hori konfliktuak egon diren beste tokietan gertatu da. Adostasun politikoa landu behar dira, gatazkak motibazio politikoa baitu abiapuntua". Udala mailan landutako adostasun politikoa edota hainbat herrietan martxan jarritako herritarren foroak azpimarratu



zituen. Udalerrri ezberdinetan sortzen ari diren hainbat dinamika txalotu zituen: "Udal ordezkariak herri erreferenteak dira. Konfiantza eman diete herritarrek, beraz badute egin behar bat eta horietako herrietan bizikidetzaren sustatzea da. Motibazio politikoko biolentzia jasan dugunez, politikatik erantzun behar diogu. Udalerrri askotan saiakerak egiten ari dira, eta horien guztien lana txalotzekoa da".

ferentziaren aurrean, justizia aldarrikatzeko balio du: Memoriaren benetan oroitzea, justiziaren alde etengabe jardutea, orain eta etorkizunean. Era berean, badago ahaztu nahiaren joera. Etorkizunaren eraikuntzan zerotik abiatu nahi dutenen postura, ezer gertatu ez balitz bezala. Nahita ahanzteak babesteko isiltasun kalkulatu, alegia. Ahaztea injustiziaren lagunik onena da, izan ere ahazten dena ez da sozialki existitzen. Ezin dugu ahazten irakatsi, onartu nahi ez dena gogoratzeak sortzen duen sufrimendua ekiditeko. Nahita ere ahaztu ezin daitezkeen gertaerak daude, ahaztea mehatxua da beti. Horregatik gaurko bezalako ekitaldiak egiten jarraitu beharrean gaude, memoriaren bidez egia, justizia, errekonozimendua eta kalte ordainak aldarrikatu behar direlako".

Mugi, garraibide ezberdinak erabiltzeko Gipuzkoako txartela da

Renfe-Adif tren zerbitzua Mugin txertatzeko bidean da

Mugi tarifa sistema bateratuan sartuko da tren zerbitzua 2018. urtetik aurrera, berriki Marisol Garmendia Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun diputatuak jakinarazi duenez.

Ia bost urte dira Mugi sistema ezarri zela, abantaila gisa, Gipuzkoako hainbat garraibideetan, eta orduz geroztik luzatu dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Renfe-Adifen arteko negoziazioak.

Gipuzkoako lurretan Brinkola eta Irun arteko bidaiariei zerbitzua eskaintzen die Renfe-Adifek.

Pauso hori iristear den urte berrietik aurrera emango da, Gipuzkoako garraibide guztietara zabalduz horrela. Bestela esanda, Mugi txartela Lurraldebusen, hiri barrutiako bus zerbitzuetan, Eusko-Trenen eta Renfe-Adifen erabili ahal izango da.



Beterri-Buruntzako biztanleak onuradun bilakatuko dira.

Mugi txartela 2018an erabili ahal izango da Renfe-Adif tren zerbitzuetan

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako erabilera datuen arabera, iaz 65 milioitik gora bidaia

egin zen Mugi sisteman sartuta dauden zerbitzuetan, eta horietatik 55 milioi txartelarekin ordaindu ziren. Datu horrek txartelaren hedadura erakusten du, sendotasun handiko formula dela erakusten duelarik. Beterri-Buruntzako biztanleak onuradun izango dira, beraz.

GOI MAILAKO KIROLARIAREN BISITALDIA

Gainditze pertsonalaren, taldearen garrantziaren eta Errealeko mutilen lehenengo taldean euskarak duen garrantziaren inguruan mintzatu zen Imanol Agirretxe Real Sociedad taldeko futbol jokalaria. Usurbildarra Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleekin bildu zen lehenik, eta Lehen Hezkuntzako ikasle handiagoeekin ondoren. Ekitaldi berean ikastetxeak Agirretxeren omenez egindako bideoa ipi-



ni zuten. Errealeko jokalaria agurtu aurretik, ikasleek berarekin argazkia ateratzeko aukera izan zuten. Argazkian, LHko 6.A ikasgelako ikasleekin batera.

GAZTAIN JATEA

Tradiziozko ekitaldia da Saleciar ikastetxean gaitain jatea egitea. Aurtengoan aipatzea merezi duen ekintza baten ondorioz izan da. Izan ere, Lanbide Heziketako Mante-nimendu Elektromekanikoko ikasleak gaitainak erretzeko labearen diseinuaz eta muntai-az arduratu dira.

Eta egindakoa ondo zebilela frogatzeko, zer hobea gaitainak egitea baino! Gelakideak gonbidatu zituzten gaitain jatera.

Ikastetxeko arduradunen



esanetan, "giroa apartekoa izan zen eta sabela beteta jogan ziren. Lehen ebaluaketa ondo amaitzeko indarrak hartuko zituztelakoan gaude".

Hezkuntza hobetzeko egitasmo berritzailea



Hirurogei irakasle bildu zituzten Lekaion, hezkuntza jardunaldian.

"Hezkuntza hobetu: jakin, partekatu eta elkarrizketatu" egitasmo berritzailea burutzen ari dira egunotan Euskadin, eta Urnieta, Santurtzi eta Laguardia dira egitasmoan murgilduta dauden herriguneak. Urnietari dagokionez, egitasmoaren sustatzaileak Euskadiko Eskola Kontseilua eta Urnietako Udala dira. Joan zen astean Urnietako ikastetxe guztietako hirurogei irakasle hainbat gairen inguruan sakontzeko jardunaldia burutu zuten. Besteak beste,

honako gaiak landu zituzten: irakaslearen garrantzia, giza mailako heziketa, elkarrekin bizitzeko hezkuntza, aniztasuna, euskara, aldaketa metodologikoak, ebaluazioa, eta eskola eta familien arteko harremanak.

Egitasmoak aurrera darrai eta datorren azaroaren 21ean gurasoeekin bilera deituko dute.

Gurasoek bezalaxe, ikasleek ere aurrerago euren ikuspuntua azaltzeko aukera izango dute.

Arkabe izena hartuko du



Arkabe gunea.

Etxeberri plazatik gorantz, Lekaio aldera eta San Juan plaza aldera doan eremuak Arkabe izena hartuko duela iragarri du Urnietako Udalak. Eremu hartan eraiki duten bizigunea azken fasean da. Erabakia hartzeko garaian, Urnietako Udalak Luis Mari Zaldúa herriko filologoaren gomendioak lehenetsi ditu. Arkabe Urnietako bertako izen toponimikoa da.

Kiropraktika Lekaion hizpide



Xabier Mendiaraz kiropraktikoa.

Xabier Mendiaraz kiropraktikoak hitzaldia eskainiko du datorren azaroaren 21ean, arratsaldeko 18:00etatik aurrera Lekaion. Deialdia irekida, eta doakoa. Jorratuko di-

ren gaiak, nagusiki, honakoak izango dira: "Nola hobetu zure osasuna?", "kiropraktikaren onurak", "ergonomia aholkuak" eta "stress mota ezberdinak".

ANDOAINGO HERRIAREN HISTORIA LABURBILTZEN DUEN LIBURUA DA LEYÇAUR 14

Leyçaur lan historikoen liburu aurkezpena

Andoaingo historia historiaurretik 2015era aztertzen duen Leyçaur 14 liburu aurkeztu zuten Basteron asteartean. Hainbat historialaririk aro historiko ezberdinak ikertuz egin dituzten atalek osatzen

dute liburu. Ana Carrere alkateak, Udal artxibategiko arduradun Karmele Otaegik, Elena Torregaray liburuaren koordinatzaileak eta Iñigo Imaz historialariak egin zuten aurkezpena.

Ana Carrere alkateak azaldu zuenez, berezia da oraingoan kaleratu den Leyçaur: “2015ean 400 urte bete ziren Andoainek hiribilduaren maila lortu zuela, baina dakizuen bezala, Andoainek duen historia 400 urtetik haratago doa. Beraz, edizio honetarako, egokia ikusi da 26 urtetan Leyçaur aldizkarian argitaratu diren lanak oinarri hartuta, Andoainek herri gisa duen historiari erreparoa egin, ordenatu, kokatu eta ikuspegi historikoa ematea”. Azkenik, Carrerek eskerrak eman zizkien egitasmoan parte hartu duten historialariei, Udal artxibategiko arduraduna den **Karmele Otaegiri** eta laguntzailea den **Marta Trutxuelori** Andoaingo historiaren xehetasunak jasotzeko egiten duten lanagatik, eta, **Kutxa Fundazioari** eman duen diru laguntzagatik.

Karmele Otaegik gaineratu zuen 1970ean Rikardo Arregik argitaratu zuen “Aspectos de la vida e historia de Andoain” liburuxka kenduta, Andoaingo herriaren historia ez zegoela liburu bakar batean jasota, eta Leyçaur 14 hutsune hori betetzera datorrela. Ondoren azpimarratu zuenez, lan honetan historian zehar bazterturik egon diren emakumezkoen protagonismoa oso kontuan hartu da.

Gipuzkoako historialariak biltzen dituen Miguel de Aranburu elkarteak arduratu da liburu idazteaz, eta talde lanean aritu diren **Elena Torregaray** eta **Iñigo Imaz**ek hartu zuten hitza, aurkezpen ekitaldian. Torregarayk eskerrak emanez ekin zion bere mintzaldiari; Andoaingo Udalarari lehendabiziko eta behin, “ikerketak historikoak finantzatzeko orduan ausardiaz jokatzeko segitzen duelako, nahiz eta Europako kultur instantzietan ez izan nagusi joera hori”. Andoaingo bi udal artxibategi zainak ere gogoan izan zituen, “izugarri lagundu eta aholkatu gaituztelako”. Azkenik, Kutxa-Fundazioa izan zuen aipagai, eman duen diru laguntzagatik. Andoaingo Kutzako zuzendaria den **Joseba Dentizi** aurkezpenean zen.

Torregarayk aitortu zuen lehenengo aldia dela **Miguel de Aranburu** elkarteak halako lan bat burutzen duela Gipuzkoan, herri baten historia jasotzen den heinean. Parte hartu duten historialari guztiei bizipen aberasgarria egin zaiela gaineratu zuen: “Agian, bere herriaren historia ezagutzen duten andoaindarrentzat bai-



Iñigo Imaz, Marta Trutxuelo, Karmele Otaegi, Elena Torregaray, Ana Carrere eta Joseba Dentizi.

“Leyçaur aldizkarian argitaratu diren lanakoinarri hartuta, Andoainek herri gisa duen historiari erreparoa egin, ordenatu, kokatu eta ikuspegi historikoa ematea egoki ikusi da”

Ana Carrere

“Zalantza daukagu zer egin hemendik aurrera: aldizkaria inprimatu eta digitala izaten jarraitu, ala, papera betirako alde batera utzi eta eremu digitalean murgildu”

Karmele Otaegi

no ikasgarriagoa izango da liburu hau guretzat”. Leyçaur 14 liburu Andoaingo historia eguneratzera datorrela esan zuen segidan. “Badirudi gertakizun historikoak modu jakin batean idatzita gertatzen direla betirako, baina egiaz, aldatzen doa gertakizun historikoen interpretazioa eta baita historia horren gainean daukagun pertzeptzioa ere”.

Iñigo Imazek, Leyçaur aldizkariaren ibilbidea gorapaitzeaz gain, liburuaren lanketa prozesua izan zuen hizpide. “Lan talde zabala izan da gurea, nor bere aro historikoa jorratu du. Ez da sintesi lan soila izan, ahalegin handia eskatu digu. Historia liburu hau osatzeko, idatzita dagoen guztia kontuan hartzeaz gain, geure ikerketaren bitartez topatzen genituen hutsuneak bete behar izan baitugu”.

LEYÇAUR ALDIZKARIAREN ETORKIZUNA

Karmele Otaegi Udal artxibategiko arduradunak zenbait galdera utzi zuen aurrean, Leyçaur aldizkariaren etorkizunaz hausnartzeko baliagarri izan daitezkeenak. “Nahiz eta aldizkariaren ibilbidearekiko balorazio baikorra egin, ezin gara autokonplazentzian jausi. Zalantza daukagu zer egin hemendik aurrera: aldizkaria inprimatu eta digitala izaten jarraitu, ala, papera betirako alde batera utzi eta eremu digitalean murgildu. Era berean, erabaki beharko genuke diru laguntzak jaso dituen lanak argitaratzen jarraitu, ala aldiz, argitaratu interesgarritzat jotako argitara gabeko monografiak, tesiak edo gure historiako atal ezezagunenak ezagutzen lagunduko diguten ikerketa enkarguak...”.

AURTENGO LIBURUAREN ATALAK ETA BERE EGILEAK:

1. Historiarreko populazioa Adarra eta Belkoain inguruan (Jose Antonio Mujika).
 2. Andoain Burdin aroan (Carlos Olate).
 3. Andoain erromatarren garaian (Jokin Lanz).
 4. Andoain erdi aroko herria (Ana Galdo).
 5. Andoain zabalkunde garaian (Iñaki Garrido).
 6. Aldaketen mende bat. Andoain XVII. mendean (Estibaliz Gonzalez).
 7. Argien mendea itzal batzuekin, Andoain XVIII. mendean (Carlos Rilova).
 8. Historia astindu zuten hirurogeita sei urte. Andoain eta XIX. mende laburra (1800-1876) (Carlos Rilova).
 9. Andoaingo modernizazio prozesua. Azken guda karlistatik Espainiako II. Errepublikara (1876-1936) (Iñigo Imaz).
 10. Gerra zibila eta frankismoa Andoain (1936-1975) (Pedro Barruso).
 11. Trantsizioa eta demokrazia Andoain (1975-2015) (Pedro Barruso).
- Itzultzailea: Iñaki Villoslada.

Protesta zaratatsua egin zuten Bazkardo eta Sorabilla artean

Garraiolariak haserre



Gipuzkoako garraiolariak ekimen ikusgarri eta zaratatsua burutu zuten Andoainen, joan zen larunbatean. N-1 errepidean, 2018ko urtarriletik aurrera Gipuzkoako Foru Aldundiak bidesaria ezarriko die Aita Larramendi ikastolaren parean ipiniko duten kontrol gunean. Hiru sindikatuak deituta, ia ehun kamioilari Sorabillatik Bazkardora bitarteko tartean behin eta berriro igaro ziren, bozina joz eta ibilgailu soka luzea sortuz.

Kamioilariak euro bat ordaindu beharko dute Gipuzkoan kokatuko diren hiru peajeetatik (Irun, Andoain eta Etzegarate) igarotzen diren aldiro. Protesta ekintza burutu ostean, Sorabillan egin zuten prentsaurrekoan adierazi zutenenez, Gipuzkoako garraiolari autonomo bakoitzak hilean 200 euro ordaindu beharko ditu, batz bestea. Askok eta askok errepide hori erabiltzen dute, lanerako joan-etorrian.

Hiru sindikatuak salatu zutenenez, dirua biltzea da bidesarrien helburu nagusia, eta eurak



ia ehun kamioilari Sorabillatik Bazkardora bitarteko tartean behin eta berriro igaroz, bozina joz eta ibilgailu soka luzea sortuz.

Peaje sistemak Gipuzkoako garraioaren sektoreari min handia egingo diola uste du Hiru sindikatuak

izango dira kaltuetuenak. Gipuzkoa tarteka zeharkatzen duten kanpoko kamioilariak baino askoz gehiago. Gipuzkoako garraioaren sektoreari min handia egingo diola gaineratu zuten. Gogoratu zuten Eusko

Jaurlaritzak sektorea aztertuz 2015ean egin zuen txostena; haren arabera, %30 jaitsi dira sektoreko euskal enpresak azken urtetan, eta lanean jarraitzen dutenak oso txikiak dira, 2,5 kamioi dituztelarik batz bestea. Era horretan, sektorea atomizazio prozesua jasaten ari da; urritzen ari zaio errentagarritasun ekonomikoa, geroz eta gehiago prezioak esplotazioaren kostuen azpitik jartzen ari zaizkielarik.

GELTOKIKO IGOGAILUAK

Renfe-ADIF sareko trena egunero erabiltzen duen herritar batek kexua igorri digu, Andoaingo geltokiko bi igogailuak oso egoera txarrean daudela adieraziz. Agurta ezineko kiratsa egoten dela bietan, jendeak txisa egiten duelako; bestalde, euren zorruak eta hormak zikinak eta kolpatuak egoten dira. Garbiketaren eta mantenimenduaren premia handia ikusten du kexua agertu duen Renfeko erabiltzaileak.



Matrikula zabalik Galardi Udal haurreskolan



0 eta 2 urte bitarteko haurren heziketaz arduratzen da Andoaingo Galardi Udal Haur Eskola. Urtarriletik aurrera hasiko diren haurrentzat matrikula zabalik dago azaroaren 27tik abenduaren 7ra bitarte, beti ere plaza libre break egonda. Izena Bastero Kulturguneko bulegoan eman behar da.

Kalitatezko hezkuntza osoa eskaintzen du Galardi Udal Haur Eskolak, beti ere familia eta eskolaren arteko elkarlan estua sortuz. Euskarra da praktikatzeko duten hizkuntza.

Jolaserako gela handi eta argitsuak dituzte; baita, lotarako gela aproposak eta psikomotritate gela ere. Sukalde propioa dute, janari ekologikoa eskainiz.

ATE IREKIA JARDUNALDIAK

Galardi bisitatu nahi duenak azaroaren 21ean eta abenduaren 4an du aukera, 16:30etan eta 17:30etan.

Helbidea: Extremadura kalea, 6.

Informazioa: 943 300 655.

Webgunea: www.andoain.eus.

Kontsumo bulegoak hitzaldia antolatu du



Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegoan zerbait kexa eta kontsulta jaso da etxeko atea joz egiten dituzten eskaintzen harira, batz ere argindarra eta gasa kontratatze eskaintzetan.

Etxearen alorreko hornidurei buruzko hitzaldia antolatu du Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegoak (KIUB) azaroaren 21ean, Urigain Etxean arratsaldeko seietan, Kontsumobide Prestakuntza zentroaren laguntzaz.

Bertan hainbat aholku emango dira etxeko atea joz eskaintzak egitera etortzen diren inguruan:

- Ez zaude behartuta atea zabaltzera, eta ez sinatu ezer aurrez ondo irakurri gabe.
- Energia merkaturatzen

duen enpresa aldatzeko asmoa izatekotan, egin aurrez analisi kritikoa: ongi aztertuz estrak, fakturazio aldia, tarifa eta gisa horretako alderdiak.

- Salgaia merkaturatzen duen enpresa Kontsumoko Arbitraje Sistemarekin (kontsumoari lotutako gatazka epaitegietatik kanpo konpontzeo bidea) bat egindakoa izatea kontuan hartzeko berme gehigarria da.

- Egindakoz damutuz gero, 14 eguneko epea dago kontratuari uko egiteko, penalizaziorik gabe.

- Gertatutakoa lehenbailehen kontatu familiakoei eta lagunei. Laguntzarik behar izatekotan Kontsumitzaileen Informazioarako Udal Bulegora jo daiteke.

EMANALDIA SANTA KRUTZ ELIZAN

Musika eta danbor hotsak Santa Zeziliaren ohorez

Musikarako zaletasuna eta herri identitatea indartzen dituen kontzertu horietakoa izan zen Gora Kale Txiki Bandak eta elkarteetako danbor-jotzaileek Santa Krutzen eskaini zutena, joan zen larunbat arratse-

an. Goikoplazatik irten ziren kalejiran, Santa Krutz elizan kontzertu bikaina eskainiz. Entzuleak kantari eta txaloka jarri zituzten.

Argazkiak, bideoak: www.aiurri.eus



Gora Kale Txiki Bandako kideak, larunbat iluntzean.



Elkarteetako danbor-jotzaileak, kalejiraren hasieran. Ezker eskuin, Karrika, Zumeatarra, Andoaindarra eta Hogar Extremeñoeko ordezkariak.



Joxe Mari Oartzabalek maisuki zuzendu zuen kontzertua, musikariak eta ikusleak etengabe animatuz.



Musikariak Goikoplazatik kalejiran heldu zirenerako, Santa Krutz eliza jendez beterik zegoen.

Larramendi, Goiburu eta Gau Ibilera (Txis-pun) abestiekin osatu zuten kalejira, **Gora Kale Txiki Bandak** eta Andoingo hamahiru elkarteetako danbor-jotzaileek. Musikazaleek lepo bete zuten Santa Krutz eliza, musikariak hara iritsi zirenerako. Kontzertuaz gozatze-ko prest agertu ziren entzuleak, eta Joxe Mari Oartzabal musika zuzendariak animatu ahala hasi ziren kantari, kon-

tertuko bigarren zatian, *Eperra, Xalbadorren heriotzean, Lau teilatu edota Behin batian Loiolan* abesti ezagunekin.

Joxe Mari Oartzabalen sormeneko diren *Antzizar, Joxe Ramon* eta *Felicitas* piezekin eman zitzaion hasiera kontzertuari, hala ere. Instrumentala izan zen zati hori, bandako kide diren **Mirari Ucin** (saxofoia), **Xabier Ucin** (klarinetea)

eta **Joxe Ramon Berrondo** (tronpeta) barkarlari gisa aritu ziren.

Banda eta entzuleak uztartu zituen kontzertuko bigarren zatiak; batzuek musika jarri zuten bitartean besteek ahotsa, lehen esan bezala.

Azkenik, Andoingo elkarteetako danbor-jotzaileak lanean jarri zituen kontzertuko hirugarren zatiak. Oartzabalek konposatu berri duen Andoain *Txa-*

rangatzen pieza estreinatu zuten. Honen harira, 2018rako, Gora Kale Txiki Banda herri ezberdinetako txarangak gonbidatu eta Andoainen bertan kalejira erraldoia egiteko asmotan dabil bere hamabosgarren urteurrena ospatzeko.

Efemerideari begira sortu du *Txarangatzen* pieza Oartzabalek. *Santa Krutz martxa* eta *Andoingo ereserkiarekin* amaiera eman zioten kontzertuari.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Sari-banaketa ekitaldia abenduaren 14an Basteron

'Olazabalen bidea' saria Osasun Pastortzarentzat



Osasun Pastortza izeneko taldea herriko boluntarioz osatzen da, eta hogei ta bost bat urte darama Andoaingo zahar egoitzan bizi diren aitona-amonekin eskuzabal jokatzeko. Egunero-egunero, denbora hartzen dute za-

har egoitzara joan eta bertakoei bisita egiteko, haiekin berrikerian jarduteko edo kalera irten eta pasiatzeko.

Argazkian, taldeko zenbait kide ageri dira: Jose Perez, Pilar Salaberria, Regina Aleman, El-

vira Alcalde, Sandalia de la Revilla, Arantxa Urretabizkaia, Maritxu Mendizabal, Juli Perez Perez eta Juana Mari Moraza.

Sari ematearen ekitaldia Basteron abenduaren 14an, ostegunarekin, egingo da.

ANA FERNANDEZ GOROSABEL EMAGINAREN AGURRA



Jubilaziora iritsita, emagina joan zen ostiralean agurtu zen. Hauexek bere agurreko gutunetik aipagarri diren pasarteak: "30 urte baino gehiago izan dira zuen bizitzako momentu garrantzitsuenetariako partekatzen, eta ez hain zoriontsuetan laguntzen. Zuek

hobeto ulertzen lagundu didazue. Motxila betearekin noa, eginiko lanak emandako pozarekin eta zuen maitasunarekin beteta. Zoriontsu noa.

Urte asko izan dira pasioz hartu dudana egiten. Eta hori guztia hasieratik beso-zabalik hartu ninduen herri

batean, Andoain. Eskerrik asko Udalareri, nire ondoan hasieratik egoteagatik. Bizitza zoriontsua opa dizuet denoi, mundu hobeto batean. Mila esker eta besarkada bat".

Argazkian Anabel agertzen da erdian, lankidez inguratuta.

Egitarau zabala Andoainean, azaroaren 25ari begira



Egitarauaren aurkezpen ekitaldia egin zuten astearte iluntzean.

Azaroaren 18tik abenduaren 4ra bitarte ekimen ezberdinak egingo dituzte emakumeengana indarkeria matxista salatzeko.

Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna, azaroaren 25a, iristear da eta Andoaingo Udalak hainbat ekimen antolatu du herriko zenbait emakume eta talderekin batera. **Esti Mujika** Emakume eta Gizonen Berdintasun lantzaileko zinegotziak astearte arratsaldean egin zuten aurkezpen ekitaldian azaldu zuenez, "biktimei eta hartatik bizirik irtenakoei laguntza zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa da esku hartzearen alor guztietan lan egitea: prebentzioan, detekzioan, arretan, babesean, koordinazioan, justizian eta erreparazioan".

Indarkeriaren eta bere adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten laguntzeko baliabideak eskura eduki behar direlakoan da Mujika: "Beharrezkoa da ahotsa eta protagonismoa ematea bai indarkeria matxistaren biktimei, bai berorien elkargune diren elkarteetara erreparazio bidean proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera".

Ekimen guztien artean nabarmentzekoa da azaroaren 25ekoa

